Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzaileak, honako hau adierazi du:

1981/2025 Ebazpena, martxoararen 12koa, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez onesten baitira unibertsitateko prestakuntza mikrokredentzial honen eskaintzaren oinarriak: "*Ikuspegi dialogikoa duen sareko lanerako sarrera eta orientazioa*". Prestakuntzaren helburua da pertsonengan oinarrituriko arreta integrala hobetzea gizarte-inklusioaren eremuan.

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren ustez, interesgarria da prestakuntza sustatzea gizarte-zientzien, osasun-zientzien, giza zientzien eta hezkuntzaren esparruko unibertsitate-titulua (lizentzia, diploma edo gradua) duten langileentzat, tresna berritzaileak ezagutu ditzaten arreta hobea emateko, pertsonak oinarri hartuta, baita jendeari erantzuteko beharra, ekipoen kudeaketa, parte hartzeko prozesuak eta erabakiak hartzea ere.

Horretarako, lankidetza-hitzarmen bat sustatu da Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, "Ikuspegi dialogikoa duen sareko lanerako sarrera eta orientazioa" izeneko prestakuntza mikrokredentziala egiteko, pertsonengan oinarrituriko arreta integrala hobetzearren gizarte-inklusioaren eremuan.

Prestakuntza hori zuzentzen zaie, batez ere, gizarte-inklusioaren eremuan lanean ari direnei, bereziki oinarrizko laguntzakoei, eta helburu du Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren intereseko misio publiko bat betetzea, Nafarroako gizarte-zerbitzuetako profesionalen prestakuntza sustatzearen arloan, Gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen babesean.

Espedientean dauden txostenak ikusirik, eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen ekainaren 5eko 60/2024 Foru Dekretuaren bidez emandako eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Onestea, ebazpen honen eranskinean zehazten diren baldintzekin bat, unibertsitateko prestakuntza mikrokredentzial honen eskaintza: "*Ikuspegi dialogikoa duen sareko lanerako sarrera eta orientazioa*". Prestakuntzaren helburua da pertsonengan oinarrituriko arreta integrala hobetzea gizarte-inklusioaren eremuan.

2. Deialdi hau jendaurrean jartzea Nafarroako Gobernuaren webgunean (nafarroa.eus), dagokion izapidearen fitxan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n.

ERANSKINA

"*Ikuspegi dialogikoa duen sareko lanerako sarrera eta orientazioa*" izeneko unibertsitateko prestakuntza mikrokredentziala egiteko deialdiaren oinarriak. Arlo hauetako unibertsitate-titulua (lizentzia, diploma edo gradua) duten pertsonentzat da: gizarte-zientziak, osasun-zientziak, giza zientziak eta hezkuntza. Gizarte-inklusioaren eremuan lanean aritzea lehenetsiko da, ahal dela oinarrizko laguntzan.

1. oinarria. Xedea.

70 ikaspostuko prestakuntza-eskaintza onetsi da, unibertsitateko mikrokredentzial gisa, "Ikuspegi dialogikoa duen sareko lanerako sarrera eta orientazioa" izeneko ikastarorako.

Deialdiaren helburua da prestakuntza sustatzea gizarte-zientzien, osasun-zientzien, giza zientzien eta hezkuntzaren esparruko unibertsitate-titulua (lizentzia edo gradua) dutenentzat; zehazki, Nafarroako gizarte-zerbitzuetan lanean ari direnentzat edo duela gutxi arte aritu direnentzat. Prestakuntzaren helburua da tresna berritzaileak eskuratzea pertsonengan oinarritutako arreta hobea emateko, bai herritarrei erantzuna ematean, bai ekipoak kudeatzean eta erabakiak hartzean.

Prestakuntza-eskaintza zeharkakoa da, eta sektore publikoko nahiz Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Sisteman zerbitzuak ematen dituzten entitateetako profesionalei zuzenduta dago; zehazki, esparru hauetan lan egiten dutenei:

- Gizarteratzea, oinarrizko gizarte-laguntzan
- Gizarteratzea, gizarte-laguntza espezializatuan
- Oinarrizko osasun-laguntza
- Osasun mentala
- Lan- eta hezkuntza-orientazioko zerbitzuak
- Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua
- Ikastetxeak eta Hezkuntza Departamentua

Beharrezkoa da Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Sistemako esparru guztiak ordezkatuta egotea, eta, hortaz, ikaspostuak kupoen arabera banatuko dira; guztira 10 ikaspostu egonen dira esparru bakoitzerako. Ez badago profesional nahikorik esparru bakoitzeko 10 ikaspostuak betetzeko, sobera daudenak gainerako esparruen artean banatuko dira.

Horrela ere ez badira ikaspostuak betetzen, sobera daudenak beteko dira aurrez aipatutakoez bestelako gizarte-zerbitzuetako esparruetako profesionalekin eta NUPeko graduondoko ikasleekin.

2. oinarria. Iraupena.

Ikuspegi dialogikoari buruzko prestakuntza-ekintza gehienez 6 hilabeteko epean eginen da, 2025eko apirilaren 1etik azaroaren 30era bitartean, aurrez aurre, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) instalazioetan.

Ikastaro beraren bi edizio eginen dira, aldi berean eta eduki berarekin, eta bakoitzak 37,5 ordu (4 kreditu) izanen ditu. Guztira 70 pertsonak parte hartuko dute.

Aurrez aurreko prestakuntzako 5 modulu izanen ditu, teoria eta praktika konbinatuta, eta helburu nagusia izanen da teoria dialogikoaren oinarriak lantzea. Aurrea hartzeko elkarrizketarako tresna errazak azaldu eta erabiliko dira, ikuspegi dialogikoan oinarrituta; horrek esan nahi du indartu eginen direla pertsonei batera pentsatzen laguntzeko ahalmena, elkarri entzutekoa eta besteak errespetatzekoa, hori guztia baita pertsonengan oinarrituriko arreta integralaren euskarria.

3. oinarria. Bateraezintasunak.

Ezin izanen da unibertsitateko prestakuntza mikrokredentzial honetan parte hartu, baldin eta Nafarroako Gobernuak antolaturiko prestakuntza-ekintzaren bat egin bada esparru hauetan: *Ikuspegi dialogikoa duen sareko lanerako sarrera eta orientazioa* eta *Sareko elkarrizketaren bideratzaileen prestakuntza*.

4. oinarria. Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

a) Espainiako agintariek emandako edo homologatutako unibertsitate-titulu ofizial bat izatea (lizentzia, diploma edo gradua), arlo hauetakoren batekoa: gizarte-zientziak, osasun-zientziak, giza zientziak eta hezkuntza.

b) Gutxienez ere 2 urteko esperientzia izatea Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Sisteman, Osasun Sisteman edo Hezkuntza Sisteman zerbitzu profesionalak ematen, deialdi honen 1. oinarrian zehazten diren esparruetako edozeinetan. Esperientzia hori frogatu beharko dute bai jardunean dauden izangaiek, bai langabezian daudenek.

Salbuespenez, ikaspostu libreak geldituz gero, aurrez aipatutakoez bestelako gizarte-zerbitzuetako esparruetako profesionalek parte hartzen ahalko dute, baita NUPeko graduondoko ikasleek ere, gizarte-zientziekin, hezkuntzarekin eta osasunarekin loturiko arloetakoak badira.

5. oinarria. Eskaerak eta behin-behineko izen-ematea.

Deialdia eta behin behin-behineko izen-ematea irekiak izanen dira, eta Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako Agentziak (PAGNA) eginen ditu.

"*Ikuspegi dialogikoa duen sareko lanerako sarrera eta orientazioa*" izeneko prestakuntzan ikaspostua eskuratu nahi dutenek eskaera bat aurkeztu beharko dute modu telematikoan, Nafarroako Gobernuak Interneten duen atariko zerbitzuen katalogoaren bidez, dagokion fitxa aukeratuta, 15 egun balioduneko epean, deialdi hau Nafarroako Gobernuaren web-atarian (nafarroa.eus) argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Eskaera hori nafarroa.eus webgunean argitaraturiko fitxan bete beharko da, eta emandako zerbitzuen ziurtagiria erantsi. Zerbitzu horiek sektore publikoan edo zerbitzuak ematen dituzten erakundeetan eginak izan behar dute, deialdi honen 1. oinarrian zehazten diren esparruetan.

Eskatzaileek helbide elektroniko bat emanen dute, behar diren komunikazioak edo jakinarazpenak egiteko.

Prestakuntza egiteko eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak deialdiaren oinarriak onartzea.

6. oinarria. Balorazio-baremoa.

PAGNAk, Nafarroako Talde Dialogikoaren bitartez, aurkezturiko eskaerak aztertu eta baloratuko ditu.

Eskatzaileek, izena emateko inprimakian, adierazi beharko dute zer jarduera-esparrutan duten 2 urtetik gorako lan-esperientzia, eta esparru horietako bakoitzean ikaspostua lortzen ahalko dute.

Esparru bakoitzean dagokion baremazioa eginen da, eta, hala, pertsona bakoitzari ikaspostu huts bakarra esleituko zaio, puntuaziorik altuena duen esparrukoa, hain zuzen.

Lehentasuna izanen dute deialdi hau argitaratzen denean jardunean daudenek.

Berdinketarik bada, zozketa bat eginen da, eta itxarote-zerrendan gelditukо dira onarpen-baldintzak bete bai baina ikasposturik lortu ez dutenak.

Ikaspostu hutsik bada, zozketa eginen da 1. oinarrian aipatutakoez bestelako gizarte-zerbitzuetako esparruetako profesionalen artean eta NUPeko graduondoko ikasleen artean.

7. oinarria. Onarpena eta matrikula.

PAGNAk kudeatuko du ikasleen behin-behineko hautaketa eta izen-ematea, eta ondoren ikasle horiek NUPen plataforma teknologikoa erabiliko dute behin betiko matrikula egiteko.

Nafarroako Gobernuaren web-atarian (nafarroa.eus) argitaratuko dira onartuen eta baztertuen zerrenda eta itxarote-zerrenda, izapide honi dagokion fitxan.

Onartutakoak behin-behinean hautatutakoan, Nafarroako Talde Dialogikoak informazio-mezu bat igorriko die berresteko ikaspostua lortu dutela, behin betiko matrikula egin dezaten NUPen plataforma teknologikoaren bidez. Mezu hori soilik onartutakoek jasoko dute.

8. oinarria. Hautatutakoen betebeharrak.

Prestakuntza egiteko hautatu direnek honako eginbehar hauek bete behar dituzte:

a) Prestakuntza-jardueraren eskola-orduen % 80 egitea, justifikatu ezean.
b) NUPen egiaztatzea unibertsitate-tituluaren beharkizuna betetzen dutela.
c) Matrikula egitea, NUPen plataforma teknologikoaren bidez.
e) PAGNAri berariaz jakinaraztea esleitutako ikaspostuari uko egiten zaiola, gutxienez ere prestakuntza hasi baino zazpi egun natural lehenago.

9. oinarria. Prestakuntza-jarduera hastea eta uko egitea.

Onuradunek ikastaroaren lehen egunean bertaratu behar dute. Bestela, eta jakinarazi ez badute, ulertuko da ikaspostuari behin betiko uko egin zaiola.

Uko eginez gero, ikaspostua hurrengoari esleitzen ahalko zaio, lehentasun-hurrenkerari jarraikiz.

10. oinarria. Prestakuntza-jarduera egitea.

Prestakuntza-jarduera NUPen eginen da. Prestakuntzaren baldintzak (datak, ordutegia, ikasgelak eta abar) NUPek jakinaraziko dizkie zuzenean matrikula egin dutenei.

11. oinarria. Datu pertsonalak.

Inskribaturiko guztien datu pertsonalak PAGNAk tratatuko ditu, ikasleen behin-behineko hautaketa eta izen-ematea kudeatzeko, eta ikasle horiek ondoren NUPen plataforma teknologikoaren bidez eginen dute behin betiko matrikula. NUPek jarriko ditu matrikula egiteko eta prestakuntza-programa emateko beharrezkoak diren plataforma teknologikoak, eta dagokion egiaztagiria emanen du.

Hala, prestakuntza gauzatzean, PAGNA eta NUP erantzunkide izanen dira datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, bete dadin Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa.

Horretarako, prestakuntza egin nahi dutenen datuak PAGNAren eta NUPen tratamendu-sistemetan sartuko dira, egoki gauzatu dadin bi erakunde horiek sinatu duten lankidetza-hitzarmena, zeinak helburu baitu “Ikuspegi dialogikoa duen sareko lanerako sarrera eta orientazioa” izeneko prestakuntza ematea, eta ikasleek dagozkion unibertsitate-zerbitzuetarako sarbidea izan dezaten, ikasketa-espedienteak kudeatu daitezen, metodologiaren ezarpenaren jarraipena egin dadin, etorkizunean arlo horretako prestakuntzetarako deialdiak egin daitezen, eta helburu estatistikoak bete daitezen.

Tratamendu hori zilegi da, beharrezkoa baita aipatu hitzarmena betetzeko, PAGNAren interes publikoko misio bat betetzeko, Nafarroako gizarte-zerbitzuetako profesionalen prestakuntzaren arlokoa, Gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen babesean, eta NUPen hezkuntza-arloko misioa betetzeko, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren babesean. Tratatutako datu pertsonalak bi erakundeen artean komunikatzen ahalko dira, aipatu helburua betetzeko xedez.

Kasu horietatik haratago, datuak ez dira lagako legez ezarritako arrazoirik izan ezean, eta, zer helburutarako bildu ziren, hura betetzeko beharrezkoa den denboran gordeko dira, legean ezarritako betebeharrak kontuan hartuta.